

Oraina bilakatu den etorkizuna

Leioako udal planeamenduak hainbat zabalgunek aurreikusten ditu hiria egiten jarraitzeko. Horretarako, etxebizitza- nahiz ekipamendu-erabilerarako eta jarduera ekonomikoetarako pentsatu diren hainbat lurzoru definitu dira.

Etxebizitza-lurzoruei dagokienean, kontuan hartuta aurreikusitako askok izaera urbanizagarria dutela, horien garapenak ahalbidetuko du eraikiko diren etxebizitzaren %65 etxebizitza babestua izatea. Beraz, oraindik garatzeke dauden izaera hiritarrek beste lurzoru batzuei elkartuta, udalerrian eraikiko diren bi etxebizitzetatik bat etxebizitza babestua izango da.

Ildo horretatik, Leioandi, Ubedena, Torresolo, Ondiz, Larrakoetxe, San Bartolome, Telleria, Lamiako-Txopoeta eta Txorierrri eremuen garapenak aurreikusi ditu Leioak.

Hiria unibertsitaterantz haztea definitzen du Leioandik lehenengo fase batean, eta hori lehen mailako helburu estrategikoa da udalerrientzat: Unibertsitate-campusa besarkatu ahal izatea. Hazkuntza horren antolamendua jasotzen du Udaletxetik Irlandesas ikastetxera arte, alde batetik, eta Leioandiko muinotik Aldekoena eta Artatzagana arte, bestetik.

Eremu horretan 407 etxebizitza babestu egingo dira; Leioandiko muinoa eta Errekaldeko erreka eta errotatik gertu dagoena, berriz, espazio libreko eremuak izango dira; Artatzagana kalea berrantolatuko da ikastetxe ingelesetik Bordeoenako parkeraino, eta, horrenbestez, etorbide handi bat hiritartuko da, tranbia bertatik igarotzeko, hirigunetik unibertsitaterantz.

Ubedene, Sarrienako kirol-instalazioen eta Barandiaren Goikoa institutuaren artean kokatua, bigarren urratsa da hiri-bilbe baten bidez Unibertsitatera heltzeko. Leioaztarrei babes ofizialeko 124 etxebizitza eskaintzea eta tranbiaren bidea egiteko beharrezkoak diren lurzoruen kudeaketa aurreikusi da.

Torresolo eta Ondizek udalerrriaren hirigunea auzo historikoetako baterantz zabaltzea ahalbidetzen dute. Horretarako, 322 etxebizitza babestu egingo dira Mercedarias ikastetxearen, Aldapa parkearen, Pinosoloren, ur-biltegiaren eta Ondiz auzoaren artean kokatutako lurrak hartzen dituen eremu zabalean. Horrez guztiaz gain, ekipamendu-guneak izango ditu udalerriak (kirol-, irakaskuntza- eta kultura- ekipamenduak, eta abar), eta baita aisialdirako guneak ere; gainera, hobekuntza gehiago egingo dira eremu horietako bide eta oinezkoen komunikazioan, eta baita Txorierriko auzoetan ere. Ondizen aurreikusitako eraikinak gune historikoaren izaera eta xarma berezi hori gorde eta indartzen laguntzen dute, eta gehien bultzatzen diren inguruneak dira parkea, gaur egungo azalera bikoiztu baino gehiago egiten baitu, ermita eta probalekua.

Larrakoetxe, San Bartolome eta Telleriak Basañez auzoko lurzoruetan eta horren eta Artatzagane eta Sarriena auzoetan aurreikusitako hazkuntza arautzen dute. Aipatutako hazkuntza gauzatzen denean, babes ofizialeko 148 etxebizitza egin ahal izango dira eta Alzaga parkea gaituko da; era berean, Landabarri erreka tarte garrantzitsu bat berreskuratuko da, korridore berde baten sorrerarekin. Horrekin batera, aisialdirako eremu publikoak handitu eta berrituko dira, hala nola, San Bartolome plaza, auzoko etxean, eta udal ekipamenduetarako lurzoru lortuko da (hezkuntza, kirolak...). Era berean, hobekuntza garrantzitsuak egingo dira aipatutako auzoen arteko bide eta oinezkoen komunikazioan, kale berriak ireki eta beste batzuk

berritzea aurreikusi baita.

Lamiako-Txopoetan jarraipena emango zaie hiria eraberritu eta biziberritzeko jarduerari. BBEEBBez gain, auzoa biziberritzeko benetako motorra izan arren, auzoaren erdi-erdian dauden industria-lurzoruetan aurreikusitako jarduerak bertatik ateratzeko irteera eskainiko die Delta de Lamiako, ALESA eta LAN enpresei, eta, gainera, kokalekura hobeto egokitzen diren erabileretarako berreskuratuko da. Auzoarentzako udal zerbitzuak hartuko dituen ekipamenduak garatu ahal izateko lurzoruaren lagapena lortu du udalerrriak, eta, horrenbestez, gaur egun daudenak trenbidearen beste aldera eramán eta beste berri batzuk egin ahal izango dira.

Txorierriren hiri konfigurazioa osatuko da, kalitate handiko akabera batekin, auzoaren hegoaldean. Era horretan, eguzkimendu onena lortzeko plaza taxutu da, eta baita itsasadarraren bista ezin hobekuntza eskaintzen dituen ibilbide begiratokia ere; gainera, auzoaren eta Lamiako-Txopoeta artean dagoen maldari irtenbidea emango dion lotura mekanikoa ere aurreikusi da bertan.

Pinuetan ez da etxebizitza berririk aurreikusi, baina horrek ez du esan nahi eremu horretan ez duenik hobekuntza-jarduerarik aurreikusi HAPOk. Auzoaren hiri-konfigurazioan aspalditik datozen arazoei aurre egitea ahalbidetuko duen proposamena taxutzeko asmoz herritarren artean hainbat partaidetza-prozesu egin eta gero, azkenik adostasuna lortu da lurpeko aparkaleku bat eraikitzeko, 400 autorentzako tokia izango duena; era berean, erabilera publikoko plaza eta frontoia egingo dira bertan, eta Langileria 202an dagoen higiezin historikoa udal erabileretarako izango da, hori guztia Gaztelubiden.

Leioan aurreikusi den etxebizitza-izaerako hazkuntza horrek etorkizuneko apustu orekatua eta arduratsua egitea eskatzen du, eta baita udalerrian lanpostuak sortzea ahalbidetuko duen jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren aurreikuspena egitea ere. Helburu hori lortu nahi da Saltuena, Leioa-Astrabudua eta Lamiako-Txopoeta Jarduera Ekonomikoen Parkeekin. Dagoeneko helburu hori betetzeko lurzuak gorde dira garai bateko Ospitalearen eremuan, Erandioekin muga egiten duten lurretan, Udondo ibaiaren parean eta Lamiakoko dartsenaren inguruan. Lamiako-Txopoetakoak beharrezko osagaia izan nahi du auzoan aurreikusitako biziberritze-jardueren ondoriozko etxebizitzetarako hiri lurzoria eraberritzeko jarduera orekatzeko.

Hiru JEP berri horietarako osagarri perfektua izango da EHUko Parke Zientifikoaren sorrera. Instalazio moderno eta puntako hori Euskadiko parke teknologikoen sarean sartuko da, eta EHUK udalerrian jarraitzearen alde egindako apustua finkatuko du, campuseko ikerketa- eta berrikuntza-jarduera osatuko duen eskaintza garrantzitsua bilduz, eta, gainera, bultzada handia izango da Leioan kalitatezko lanpostuak sortzeko.